



Andoingo Udala

2023UDOS0015

## Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2023/10/26

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 26/10/2023

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

### Bildutakoak: / Asistentes:

**Alkatea / La Alcaldesa** Andoni Alvarez Lete

**Zinegotziak: / Concejales:**

<b>EH-Bildu</b>	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fondón Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Torrillos
	Haizea Barandiaran Zubillaga
<b>PSE-EE</b>	Diego Barrasa Ruiz
	Larraitz Arriola Larrarte
	Maider Lainez Lazcoz
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
<b>EAJ-PNV</b>	Aritz Alkain López
	María Belén Moreno Méndez
	Imanol Goenaga Egibar
<b>Elkarrekin Podemos</b>	Idoia Mikelez Alonso
	M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	<b>0000015</b>
Eguna	<b>2023/10/26</b>
Hasiera	<b>19.00</b>
Amaiera	<b>19.20</b>

### Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

### Kontuhartzailea:

### Gai Zerrenda:

- 2023/09/28(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

### Xedapenak

- Andoingo Tokiko Energia Komunitatearen estatutuen aldaketa, autokontsumo-erregimeneko energia aprobetxatzeko proposamena eta TEKEN aldeko bi estalkien jabari publikoko emakida onartzeko ebazpena onartzea.
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana onesteko proposamena, UNICEFek eskatutako Haurren Eskubideen ikuspegitik.
- 8/2023 zk.ko Kreditu Aldaketa espedientea onartzea.
- Andoingo udalaren adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 435/2023 Epaia-aren aurrean.

### Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1894/2023 zenbakidunetik 2136/2023 zenbakidunera.

### Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 28/09/2023.

### Parte Dispositiva

- Modificación de los estatutos de la Comunidad Energética Local de Andoain, de la propuesta de aprovechamiento de energía en régimen de autoconsumo y de la resolución de aprobación de la concesión demanial de dos cubiertas a favor de la TEK.
- Propuesta de aprobación del Plan Local de Infancia y Adolescencia desde el enfoque de los Derechos del Niño exigidos por UNICEF:
- Aprobación del Expediente Modificativo de Crédito nº 8/2023
- Declaración del ayuntamiento de Andoain en relación con la sentencia del TSJPV 435/2023.

### Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1894/2023 y la nº 2136/2023.



7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.**

---

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Kaixo, arratsalde on eta ongi etorri 2023ko urriko ohiko udalbatza honetara. Besterik gabe, hasiera emango diogu udalbatza honi.”

**1. 2023/09/28(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2023/09/28 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

**2. Andoingo Tokiko Energia Komunitatearen estatutuen aldaketa, autokontsumo-erregimeneko energia aprobetxatzeko proposamena eta TEKEN aldeko bi estalkien jabari publikoko emakida onartzeko ebazpena onartzea.**

1.- Andoingo Udalak, 2022ko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain elkarteak erabaki zuen eta haren estatutuak onartu zituen, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2022 Lege Organikoarekin eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearekin.

2.- Andoingo TEK Elkarteak Udalbatzak hartu beharreko erabaki-proposamena igorri zion Andoingo Udalari. Tokiko energia-komunitate bati zuzendutako energia sortzeko plaka fotovoltaikoak instalatzeko udal-titulartasuneko zenbait higiezin azalera emateko.

3.- Ander Aranzadi Ormaetxeak, TEK Andoain izenean jardunez, Ondarreta Ikastetxeko eta Allurralde Kiroldegiko estalkietan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzeko memoria teknikoak aurkeztu zituen Udal honetan, aurretik egindako emakida-eskaera osatzeko.

4.- Udalbatzak, 2023ko maiatzaren 2an egindako osoko bilkuran hartutako zortzigarren erabakiaren bitartez, TEK Andoain eskatutako emakidaren komenigarritasuna adierazi zuen eta, ondorioz, aurkeztutako eskabidea izapidetzea onartu zuen. Eta elkarte horri jakinarazi zion, dagokion administrazio-prozedura izapidetzen jarraitzeko, emakidaren proiektua jaso behar zuela, eta proiektu horrek, nolana ere, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 84. artikuluko a)-tik f)-ra bitarteko idatz-zatietan eskatutako memoria eta gainerako dokumentuak jaso behar zituela.

5.- 2023ko urriaren 6an, Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain elkarteak, instalazio fotovoltaikoak jartzeko, Ondarreta Ikastetxeko eta Allurralde Kiroldegiko estalkien emakidarako memoria teknikoak aurkeztu ditu.

6.- Ander Aranzadi Ormaetxeak, TEK Andoain izenean jardunez, 2023ko urriaren 11n elkartearen estatutuak aldatzeko eskabide aurkeztu zuen.

7.- Ikusirik Udaleko idazkariak sozietatearen estatutuak aldatzeko eskaerari buruz emandako aldeko txostena.

8.- Udalbatza berria eratu ondoren, Andoingo TEKERako Andoingo Udalaren ordezkaria izendatu behar da.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea Batzordearen 2023ko urriaren 19ko irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintzako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

"Bueno, proiektu hau, denok dakizuen bezala, aurreko legislaturatik dator eta aurrera jarraitu ahal izateko dokumentazio guztia aurkeztu dute. Estatutu aldaketa honekin udalak hartzen ditu bere gain soberan geldituko lirakeen partizipazioak, ez bada jende nahikoa apuntatzen edo bueno, martxan jarri diren,



partizipazio guztiak ez badira betetzen.

“Bestetik, bi udal estalkien, jabari publikoko emakida.

“Hirugarren puntu bezala izendapena egiten da eta Alkate jauna izendatzen da Andoingo udal ordezkari bezala.

“Bestetik, esan, atzo, herritarrekin bilera egin zen, eta dakizuen bezela, azaroaren 13ra arte ireki da izena emateko epea. Azaroan, bi eta bederatzian, ordubietatik seiretara, Ataria egongo da irekita, norbaitek informazio gehiago behar badu.”

Alkate jaunak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi. Muy buenas tardes a todos.

“Bueno, desde el Grupo Municipal Socialista queremos trasladar nuestra satisfacción porque el gobierno municipal, el equipo de gobierno, cómo decirlo, perdón, ha atendido nuestra petición realizada el pasado pleno de finales de septiembre, donde les instábamos a ponerse a trabajar para que esta comunidad energética pudiera ser una realidad.

“No obstante, quiero volver a reiterar nuestra preocupación por el hecho de que este proyecto ha estado más de tres meses parado y tenemos incertidumbre por las posibles consecuencias que ese hecho pueda acarrear, teniendo en cuenta de que a día de hoy ya son más de un centenar de personas las que están apuntadas a esta comunidad energética y están esperando que se ponga el proyecto en marcha. Milesker.”

Berriro ere, Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bueno, guk agertu genizun aurreko udalbatzan garaiz genbiltzala dirulaguntza horietara iristeko, eta gaur berriro gauza bera diegu. Hala eta ere esaten duzu, galdu da denbora bat, zuk ondo dakizu hau maiatzeko udalbatzar batean hasi zela prozesua eta hurrengo urratsak eman ahal izateko, beharrezkoa zen enpresak bere txosten juridikoa edo teknikoa aurkeztea eta hori urriaren seian egin zuen, hau da, nahita ere, urriko pleno hau baino lehenago ezin izango genuen ekarri. Orduan, alde horretatik, lasai egon, zeren, prozedurak jarraitu du. Prozedura honetan udalak dauka bere esku-hartzea eta enpresa kudeatzaileak dauka bere esku-hartzea. Eta orduan guk bai esan genizuen, aztertu genuela, gainerako gauza guztiak aztertu genituen bezala, baina aztertu gabe ere, urrirako plenoa ekarriko genuen gai hau, zeren, esan dizudan bezala, txosten teknikoa edo urriaren seian aurkeztu zuen enpresak. Argitzeko.”

Berriro ere, Verdasco jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Simplemente por comentar, cuando yo me he referido a que el proyecto estaba parado, como dije en el pleno de finales de septiembre, es porque usted así se refirió a él, cuando una persona le preguntó en la reunión que ustedes convocaron para presentar su programa de legislatura, usted se refirió al proyecto diciendo que lo habían tenido ustedes parado hasta esa misma mañana, que decidieron reactivarlo, esas fueron las palabras que usted trasladó en esa reunión.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik esan nuen aztertzen ari ginela. Bi bide dira. Gauza bat da guk aztertzea eta bestea da enpresak behar dituen premiak, dokumentazioa entregatzeko, eta dokumentazio urriaren seian entregatu dute, horixe esan nahi nuen.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du.

**Lehena:** Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain energia-komunitatearen estatutu-takako xedapen iragankorraren 5. paragrafoaren aldaketa onartzea, paragrafo berri bat sartuz (5. zenbakiko paragrafoa). Paragrafo horrek honakoa dio:

“5. Andoingo Udalak, CELekeo bazkide den aldetik, instalazioa martxan jarri aurretik TEKen adosten den basierako autokontsumorako koefizientea izango du bere udal-kontsumo-erako. Koefiziente horrek bermatuko du instalazioaren ekoizpen-ahalmenaren % 100 TEKeo bazkideei eta udalari berari esleituta dagoela. Partaidetza horiengatik udalak bilero ordainduko dio TEKi batzarrak TEKeo bazkideentzat zehazten duen hileko kuota, estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera.



*Instalazioa martxan jarri ondoren, udalerriko familiak edo denda txikiak TEKEN sartzea eskatzen badute, edo TEKekeko bazkideak, parte-bartze handiagoa eska dezaketenak, TEKeke udalari jakinaraziko dio, bark bala uste badu, bere banaketa-koefizientea murriztea erabaki dezan, bazkide berriek TEKEN sartzeko.*

*Instalazioa martxan jarri ondoren TEKekeko bazkideak baja hartzen badute eta TEKEN sartzeko itxaron-zerrendan pertsonarik ez balego, udalak partaidetza huts horiek bere gain hartuko ditu, bere banaketa-koefizienteak handituz, dagokion energia autokontsumo-erregimen partekatuan aprobetxatzeko dagokion banaketa-koefizienteak esleitu behar zizkizkien udal-kontsumo bat edo batzuk identifikatuz. Horrela, instalazioak sortzen duen energiaren % 100 TEKekeko bazkideek eta udalak berak aprobetxatuko dutela bermatzen da, TEKekekoak ez diren hirugarrenei energia hori merkaturatzea saihestuz.*

*Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, udalak egiten duen autokontsumoagatik, hiler 4,6 + BEZ emango dio TEKi 0,5 kw bakoitzeko.*

*Aurreikuspen horren indarraldia mailegua amortizatu arte luzatuko da nabitaez, baina epe hori bete ondoren, udalari epea luzatzeko eskatu aha izango dio TEKEN batzarrak.”*

Akordio honen eranskin gisa sartzen da jarraian aipatzen diren dokumentuen onarpena:

1. Autokontsumo-erregimeneko energia aprobetxatzeko proposamena (1. Eranskina).
2. Estalkien herri-jabariko emakida TEKEN alde onartzeko proposamena (2. eranskina).

**Bigarrena:** Andoingo Udalak bere gain hartzen du gastu-konpromisoa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera edo, nolahi ere, instalazioa amaitu eta instalazio fotovoltaiakoak martxan jartzen direnean.

**Hirugarrena:** Alkate-udalburuari ahalmena ematea erabakiak formalizatzeko.

**Laugarrena:** Andoni Álvarez Lete jauna izendatzea udal ordezkari gisa TEK Andoain elkartean Era berean, ordezkari bezala izendatzen da Garazi Usandizaga Zubiria andrea.

**Bosgarrena:** Erabaki hau jakinaraztea Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain elkarteari.

### 3. Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana onesteko proposamena, UNICEFek eskatutako Haurren Eskubideen ikuspegitik.

Kontuan hartuz Andoingo Haurrentzako Tratu Onaren Tokiko Plana.

Kontuan hartuz UNICEFek egindako proposamena, Andoingo udalerria Haurren Adiskide Hiria dela aitortzekoa.

Kontuan hartuz Haurrentzako Tratu Onaren Tokiko Plana UNICEFek eskatutako Haurren Eskubideei buruzko konbentzioaren ikuspegitik lerrokatzeko baldintza.

Kontuan hartuz Haurrentzako Tratu Onaren Tokiko Plana Udal Osoko Bilkuran onetsi behar dela.

Kontuan hartuz, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileko lehendakariak 2023ko urriaren 11n egindako proposamena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileko Batzordearen 2023ko urriaren 17ko irizpena.

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, arratsalde on. 2022ko udaberrian Andoingo Haur eta Nerabeen Tokiko Plana aurkeztu zen eta aurkeztu ondotik Unicefek erakundeak, Andoain haur eta nerabeen herri laguna izendatu eta errekonozitu zedin prozesua abiatu zen.

“Uztaileko udalbatzarrean izendapena eta errekonozimendurako prozesua abiatzea onartu genuen, eta honetan aurrerapausoak emateko eta errekonozimendu hori lortzeko Unicef-ek dituen irizpide batzuk bete behar dira.

“Gure kasuan, Andoingo Tokiko Plana Haurren Eskubideen Hitzarmenaren baitan lerrokatzea eskatzen du. Beraz, Plenora ekartzen duguna ez da bere horretan plan berri bat, baizik eta aurreko edo Andoingo Tokiko Plana egokitua edo berregina.

“Dokumentu honetan jasotzen da 2023ko martxoan egin zen diagnostikoa, eguneratuagoa eta osatuagoa dena. Beste alde batetik, orain arte Andoingo Tokiko Plana esparruka edo zegoen antolatuta haurren eremuan, gurasoen eremua, zerbitzuen eremua eta abar. Orain Unicefek bere planak edo tokiko planak haurren eskubideetan oinarrituta egotea eskatzen du. Horregatik plan guzti hau moldatu dugu, eskubide horietara.



“Errekonozimenduaren fase honekin bukatzeko, Unicef-ek eskatzen du Udalbatzarrean onartzea. Plan honek lau urteko baliozkotasuna izango duela eta bi urtera txosten bat edo egin beharko dugula.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Haurren eskubideetatik abiatutako Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plan onartzea.
2. Erabaki hau UNICEFi jakinaraztea.

**4. 8/2023 zk.ko Kreditu Aldaketa espedientea onartzea.**

"Kreditu gehigarrien (Sarekon 2023-KALD-OOOOIO-OO) eta kreditu transferentzien (Sarekon 2023-KALD-000012) bidezko kreditu aldaketaren 2023/08 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena"

Besteak beste, kontuan izanda

• Kontu-hartzailetzan dauden datuak (argindarra, erregaiak eta zerbitzutako hainbat aplikazio egoera)

• Hainbat Batzorde Informatzaileak emandako aldeko proposamenak (Kultura eta Hirigintza)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2023/08 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien eta kreditu transferentzien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak kontuan izanik.

Era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/10/20(e)ko bileran emandako aldeko irizpena, aho batez.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa azaltzeko:

“Alde batetik, kreditu aldaketa bat aurkezten da eta bestetik, kreditu transferentzia bat.

“Kreditu aldaketan, ez ditut denak banan-banan zehaztuko, baina batetik daude, erregaiak eta energia elektrikoan dauzkagun beharrak asetzeko, bai udal eraikinetan eta bai gure udal ibilgailuetan, horien kopurua 94.800 eurokoa da.

“Bestetik daukagu hirigintzan bi kreditu aldaketa, bat, 105.512 eurokoa, udal eta etxebizitza eraikinean benetakoa, eta bestea, udal eta etxebizitzaren ekipamendua, 100.448 eurokoa.

“Horrez gain, beste kreditu aldaketa badago baita ere Bertxingo zentrolean izandako kalteak konpontzeko, 56.000 eurokoa. Horien guztien batura 260.760 eurokoa izango litzateke.

“Lehen aipatu dudan bezala, kreditu transferentzia bat ere badago, 15.000 eurokoa Kulturaren, hau da, kulturako barne partida batzuetatik beste partida batzuetara pasatzen direnak.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2023/08 espedientea, kreditu gehigarrien (2023-KALD-OOOOIO-OO) eta kreditu transferentziaren (2023-KALD-000012-00) modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	246.312,00
6	INBERTSIO ERREALAK	14.448,00
KREDITU GEHIGARRIAK GIJZTIRA		260.760,00

**FINANTZAKETA**



Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	260.760,00
GIJZTIRA		260.760,00

**KREDITU TRANSFERENTZIAK**

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	15.500,00	12.000,00	3.500,00
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	3.000,00	3.000,00	0,00
GUZTIRA		18.500,00	15.000,00	3.500,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	206.500,00	15.000,00	221.500,00
GUZTIRA		206.500,00	15.000,00	221.500,00

Bigarrena.- Udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinaren aldaketa erabakiarena hau behin betikotzat joko da.

Hirugarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu

### 5. Andoingo udalaren adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 435/2023 Epaiaurrean.

Lasa andreak, Euskararen Normalkuntzarako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza honako asateko:

“Andoingo udalaren Osoko Bilkurak ostegun honetan adierazpena onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak eman berri dituen epaiaren aurrean.

“Epai horrek 179, 2019 Dekretuaren zati bat baliogabetu du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzeko. Ondorioz, hau adierazi nahi da.

“1.- Aurretik, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren egin bezala, Andoingo Udalak berretsi egin du, ETELen defentsa, udal autonomiaren eta toki erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan. Legea ezinbestekoa da euskal udalek euskararekiko duten konpromisoa eta euskal udalerritan euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duten hurbiltasunetik abiatuta.

“2.- Andoingo Udalak uste du epai berri hori toki autonomiaren aurkakoa dela eta hizkuntza arloko udal eskumenen garapen osoa mugatzen duela.

“Andoingo Udaleko Osoko Bilkurak bereziki larrizat jotzen du euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu eta lan hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikulua baliogabetzea. Funtsezko beste artikulua batzuk ere deuseztatzen dira, hala nola, kontratazio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen dutenak edo udal jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza plangintza



ahalbidetzen dutenak. Alderdi horiek eta beste batzuek funtsezkoak dira herritarrek beren hurbileko administrazioarekin harremanetan jartzeko, hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

“3.- Udalek hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak ezin ezartzea, ez barneko ezta kanpoko mailan ere, oztopoak oztupo da toki erakundeen funtzionamenduan eta, are kezkarriagoa, euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Kaltetuenak euskara gehien erabiltzen den eta ohiko hizkuntza den udalerrietako herritarrak dira.

“4.- Adostasun politiko eta instituzionalak eta euskal gizartearen elkarlanak, euskal hiztunen komunitatearen bultzada borondateagatik, euskararen bizitasuna indartzea ahalbidetu du gure herri eta hirietan. Andoingo udalak egungo egoera balioan jartzen du, estatuan eta Europan hizkuntza koofizialen erabilera errazteko urratsak egiten ari baitira, eta hori horrela, guztion artean eraikitzen joan den legeriaren bidez hizkuntza eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukera baita.”

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, esan beharra daukagu orain Lasa andreak irakurri duen adierazpen hau Eudelek udal guztietara bidali duen adierazpena dela.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, en primer lugar, arratsalde on guztioi, y buenas tardes.

“Nos gustaría aclarar que no es una declaración institucional, que es una declaración y, bueno, con respecto a la declaración que acaba de leer la señora Lasa, nosotros, como siempre que tratamos de asuntos de naturaleza judicial, desde el Grupo Municipal Socialista de Andoain queremos mostrar nuestro absoluto respeto a las decisiones judiciales, las compartamos o no, y, por lo tanto, no vamos a entrar en valoraciones de ningún tipo ni sumarnos a ningún texto que nos haga salirnos de esa posición. Muchas gracias. Eskerrik asko.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk, Lasa andreak esan duenari gehitzeko gutxi, berresten dugu eta esan bai, Eudeletik, bai Jauralaritzan, Parlamentuan, Batzar Nagusietan eta Andoingo Udalaren EAJ udal taldeak ere berresten du, testu hau.

“Aipatzeagatik, esan mozioan esaten du eskubideen urratze bikoitza dagoela. Bata, tokiko erakundeei, udaletxeok gure hizkuntza politikak sustatzeko daukagun ahalmenari eta bestea, euskarari berari ez, euskararen normalizazioaren, biziberritzean sustatzen ari garen politika horiei.

“Beraz, nik uste dut besoak gurutzatuta gelditzeko garaia ez dela, ekintzetara pasatzeko garaia dela. Ba bai kontseiluak bakarrik ez, erakunde askok, azaroak lauan sustatu duten manifestazioa horretara joateko deia egin nahi dugu, eta gure atxikimendua adierazi, ekintzetara pasatzeko garaia da, ulertzen dugu, gure eskubideak urratzen ari direlako.”

Jarrain, Lasa andreak, Euskararen Normalkuntzako Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, guk ere bukatzeko gehitu nahiko genuke Andoingo euskalgintzak gaur bertan egin duen agerraldiarekin bat egiten dugula eta azaroaren 4an, Goenaga jauna, zuk ondo esan duzun bezala, Bilbon deitutako manifestazioan parte hartzera ere gonbidatzen zaituztegu, euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldia salatzeko helburua duena. Eskerrik asko.”

Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, nik ere zerbait esan nahi nuke. Gu ere ez gaude ados Auzitegi Nagusiak emandako autoarekin, zeren la sentencia del Tribunal Constitucional resolvía la cuestión de inconstitucionalidad planteada en autos y la nulidad del inciso que puedan alegar válidamente el desconocimiento del euskera del artículo seis dos de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi y que implica a su vez la nulidad de la parte del inciso segundo del apartado número uno del artículo 18 del decreto, que transcribe un texto similar, pero no entraba en más apartados-.

“Justizia Auzitegi Nagusiaren azken epai horrek interpretazio zabalago bat egin du eta euskara sustatzen duen eta euskara administrazio publikoan, herritarrekin eta erakundeen artean dituen harremanetan lehenesten duen edozein ekintza, de facto, gatzelania baztertzen ari dela uste du.



“Guri interpretazio guztiz okerra iruditzen zaigu. Euskal Administrazio publikoak euskara sustatzeko duen betebeharra ukatzen duena eta ez ultraeskuindar, ultraeskuinaren Voxen, alderdi eder, errekurtsio egilearen diskurtsoa bere gain hartzen duena.

“Debemos hacer un ejercicio de análisis más profundo y no caer en la tentación de meter todas las sentencias en el mismo saco, solo porque están relacionadas con el euskera.

“Gure ustez, epaiak onartzea udalerrri bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa erakundeen gaztelania baztertzeko erabiliko dutela neurrigabea da eta iritzi politikoaren kutsu argia du. Legezko oinarririk eta egiaztagarririk gabekoa.

“En resumen, la sentencia del tribunal va demasiado lejos en sus interpretaciones, y se aleja de la imparcialidad que el Poder Judicial debiera preservar en todo momento.

“Por todo ello, desde Elkarrekin Podemos valoramos positivamente que el Gobierno Vasco recurra la sentencia en casación al Tribunal Supremo. Una cosa más, no nos sumamos a la adhesión que habéis manifestado a la manifestación del día cuatro.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin, adierazpena onartu du.

## **6. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1894/2023 zenbakidunetik 2136/2023 zenbakidunera.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1894/2023 zenbakidunetik 2136/2023 zenbakidunera.

Alkate jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, honako hau adierazi du:

“Bai, Kaixo. Galderatxo bat daukagu. En la resolución 2031 del 2023, hemos visto que se convalida una firma de un concejal en la que no tenía la delegación. Entonces pues bueno nos gustaría saber qué es lo que pasó.”

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Baina ez dakigu, orain ezin dizut esan, nahi baldin baduzue bihar bertan esango dizuegu. 2031 esan duzu, ezta? Esango dizuegu.”

## **7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.**

Alkateak galde-erreguen txanda ireki du, ez delarik inongo galde edo erregurik eman.

Alkateak honako hau aierazi du:

“Ba orduan amaitutzat emango dugu gaurko udalbatza. Mila esker bertaratu zareten zinegotzi guztiei eta etxetik jarraitu diguzuen guztiei.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.20 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

